

Asisko gutuna

2021eko martxoa 1. printzipioa. Eguneroko bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala 149. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Izpirituaren kontuek, iritziak, ideiak edo pentsatzeko moduak baino gehiago gertaerak direnean, bizitza errotik eraldatzen digute.

Gogoetarako gaia

Izpirituak arima ukitzen duenean

Gorabehera handiko garaiak bizitzen ari gara esparru askotan: osasunean, ekonomian, gizar-tean... baita espiritua alorrean ere. Inoiz ez genuen ezagutu halako espiritualtasun eskaintza ugaririk. Materiatik haratago, giza zientziek kontrola dezaketenetik haratago irekita egotea garrantzitsua izanik, egia da espiritua ere gure lanaren emaitza gisa bizi dezakegula. Labur esanda: "Nik lan, nik jan". Baina horrela, benetako espiritualtasunak dakarren berritasun handiena galtzen dugu: Berarenganako irekitasuna.

Lekukoek diote Jainkoa misterioz sartzela pertsonaren bizitzan. Sartze hori ez da inongo prestaketaren emaitza, balizko presentziarako arriskuz beteriko irekitasunarena baizik. Gu garen egarri sakon hori da, ezerk bete ezin duena eta ezustekoaren aurrean jartzen dena. Eta, norberarentzat izan ezik, besteentzat modu isilean bada ere, Jainkoa diskrezio osoz sartzela pertsonaren bizitzan. Harriturik utzi duen eta dena

inbaditzen duen zerbait da, sakon-sakonean gertatzen baita, pertsonaren beste dimentsio guztiak gauzatzen hasten diren tokian. Izpiritua da arima ukitu duena.

Aurrez programaturik gabeko gertaera honek, isiltasun eta otoitz esparruak bilatzera bultzatzen du, Berari gure bizitzan bide emateko; isiltzea eskatzen du, norbera ez den beste norbait "entzun" ahal izateko. Bihotza sutan dagoela esaten da, askatasuna orain artean beste ezerk ez bezala bultzatzen duela, forma berria ematen digula; guztia berregiten duen maitasuna aipatzen da... Eta, bestalde, ez gaitu mundutik ihes egiten uzten, baizik eta munduan txertatzen gaitu, inoiz ez bezala, baina erabat berrituta, guztie irekirik modu aske eta eskuzabaltasunez; munduaren erdian. Izpiritua gure barne-muinean kokatu da.

Gizon eta emakume berriez hitz egiten da, Jainkoak ukituak izan dituelako.

Bibliako pasartea: 1Kor 2,10-14

Horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barne-sakona ere. Nork ezagutu dezake gizakiaren barru-barrua, bere baitan duen giza espirituak baizik? Era berean, Jainkoaren barrua ere ez dezake inork ezagutu Jainkoaren Espirituak izan ezik. Eta guk ez dugu munduko espiritua hartu, Jainkoarengandik datorrena baizik; honela, Jainkoak eman dizkigun dohainak ezagutu ditzakegu. Gauza hauetaz ez dugu giza jakinduriak irakatsitako hizkeraz hitz egiten, Espirituak irakatsitakoaz baizik, espirituzko gaiak Espiritua hartu duten gizon-emakumeei adieraziz. Espiritu gabeko gizakiak ez du onartzen Jainkoaren Espirituari dagokiona; horrek ez du zentzurik berarentzat eta ezin du ulertu, Espirituaren argitan bakarrik juzga daiteke eta.

Frantziskotar espiritualtasuna

Gau batez, lo zegoela, norbaitek hitz egin eta galdetu zion: «Frantzisko, nork ekar diezazuke onura handiagoa, jaunak ala morroiak?» Frantziskok «Jaunak» erantzun zuenean, ahotsak esan zion: «Zergarik zabilta, bada, morroia- ren bila jaunaren orde?» Frantziskok, orduan: Jauna, zer nahi duzu nik egitea?» Jaunak esan zion: «Itzul zaitez zeure lurraldera, zure ikuskaria era espiritualean betearaziko baitut nik».

Frantzisko heldutasun beteko pertsona bihurtzen hasi zen, lehen ez bezalakoa... Asis hiriko gazte-talde batek buruzagi izendatu zuten Frantzisko; haren eskuzabaltasuna sarritan probatua baitzuten, eta ondo baino hobeto baitzekiten guztien gastuak bere gain hartuko zituela... Baina Frantzisko barrutik gauza haientzat guztiz sorgortua zegoenez, pixkanaka gorputzez ere aldenitu egin zen lagunengandik, bihotzean Jaunari kantari.

Berak geroago adierazi zuenez, une hartan hain gozotasun handiz bete zuen Jainkoak, non ez baitzen hitz egiteko gauza, ezta zegoen tokitik mugitzeko ere. Halako espiritu-eragin bat sentitu zuen, gauza ikusezinetara erakartzen zuena; eta eragin borren poderioz, munduko gauza guztiak inolako garrantzirik gabeak eta guztiz hutsalak irudituz zitzaizkion. (cf. 2 Zel 6-7).

Otoitza

Ezin da aurreikusi. Beti gertatzen da gutxien espero duzunean. Baliteke zoazela kalean, azkar, berandu zabilzalako gutun bat postaz bidaltzeko, edo zure etxean zaudela gauez, konbentzitzen ez zaituen liburu bat irakurtzen; uda izatea ere gerta daiteke eta kafetegiko terrazan eseri zarea; edo negua dela eta euria ari duela, eta hezurretako minez; triste edo nekaturik, hogeita hamar urte izatea edo hirurogei izatea. Ezin da aurreikusi. Inoiz ez dakizu noiz eta nola gertatuko den.

Badoa zure bizitza atzo bezala, arrunta eta egunerokoa. "Beste egun bat", diozu. Eta supituki, argi guztiz indartsua pizten da

zure barruan, eta orain arte zu zinena izateari utzi diozu. Mundua, orain, zuretzat desberdina da. Luzatu egiten da denbora magikoki, haurtzaroko egun hain luze haietan bezala, eta arnasa hartzen duzu bere jario ilun eta kaltegarritik libre. Orainaldiaren belardiak, non zaintza eta errutik aske noraezean zabilta. Ezohiko zorrotasunak hartu du zure barrena: dena argi dago, denak bere lekua hartzen du, dena bat dator, eta zu, inolako gatazkarik gabe, dena ulertzen duzu.

Agian istantekoa da miraria; gero gauzak betikora itzultzen dira egiaz eta errukiaz bete zizun argi horren aurreko era hartara. Baina, kontent sentitzen zara, garbi, zoriotsu, salbatua, esker onez betea. Eta abestu egiten duzu, abestu...

(Eloy Sánchez Rosillo)

Gutuneko azken hitzak

"Jainkoaren graziak, bere Izipirituaren bidez, arima baten jabe egiten denean, itxuraldatu egiten du" Joan XXIII.

2021eko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Lk 6,36-38

2. Mt 23,1-12

3 Mt 20, 17-28

4 Lk 16, 19-31

5 Mt 21, 33-43.45-46

6 Lk 15, 1-3.11-32

7 Jn 4, 5-42

8 Lk 4, 24-30

9 Mt 18,21-35

10 Mt 5,17-19

11 Lk 11,14-23

12. Mk 12,28b-34

13 Lk 18,9-14

14 Jn 9, 1-41

15 Jn 4, 43-54

16 Jn 5,1-16

17 Jn 5,17-30

18 Jn 5, 31-47

19 Mt 1,16.18-21.24a

20 Jn 7, 40-53

21 Jn 12, 20-33

22 Jn 8, 1-11

23 Jn 8, 21-30

24 Jn 8,31-42

25 Lk 1,26-38

26. Jn 10,31-42

27. Jn 11,45-57

28. Mk 14,1-15,47

29. Jn 12,1-11

30. Jn 13,21-33.36-38

31. Mt 26,14-25

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Martxoko otoitza hila-
ren 25ean izango da.